



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO URRIAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko urriaren 30ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Belouqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Micaela Elizalde, Iker Isiegas, Javier Auza, M^a Mar Ansorena.

Bertaratu da baita ere Miguel Angel Osoz, Arraratsko kontzejuko alkatea.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Irailaren 25eko ohiko batzarreko akta a emailaz bidali zena aho batez onartzen dute bildutakoek.

2.- Alkate ebazpenak

- 2024/ alkate ebazpena

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arte egindako alkate ebazpenak,

3.- Sasturain etxeko beheko solairua egokitzeko proiektuaren onespena eta obren hasiera.

Alkateak azaltzen du obra jada 2024ko abuztuaren 24ko batzarrean esleitu zena eta kontratua sinatzea zintzilik dagoela obrari hasiera emateko. Hainbat bilera egin dira proiektua egin duten arkitekto eta eraikuntza enpresaren artean... adostu dituzte esleipen proposamenean adierazten ziren zalantzak eta aldaketak, hortaz obra hasteko ez legoke arazorik baina lehenik obra proiektua onartu behar da eta alkateari kontratua sinatzea ahaldundu:

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Sasturain etxeko beheko solairua egokitzeko obra proiektua eta obra egin behar duen COTA enpresaren kontratua onartu eta alkatea ahaldundu COTA enpresarekin obra arautuko duen kontratua sinatzeko.**
- **Obraren hasiera azaroaren 5-eko egunarekin finkatzea hala adostu delako bai udala bai eraikuntza enpresarekin.**

4.- Bake epaile hautatzeko prozedurari hasiera ematea.

Alkateak adierazten du, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusitik jakinarazpena jaso dela irailaren 24ko datarekin non jakinarazten den, bake epailearen agintaldia bukatzeaz dagoela eta hortaz izendapen berria egin beharra dagoela.

Bake epaileen araudiaren 5-7 artikuluetan adierazten du tramitazioa modu honetan egin behar dela:

“5. artikulua.

1.- Bake-epaile titularren eta ordezkoren karguak hutsik geratzen badira, dagokion udalak iragarriko ditu, behar besteko aurrerapenaz, deialdi publiko bidez, eskabideak aurkezteko epea eta lekua adierazita. Probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko da, eta ediktuen bidez udaletxeko iragarki-oholean, barrutiko lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegian edo epaitegi dekanon eta bake-epaitegian bertan.

2. Justizia-auzitegi nagusietako gobernu-salek udalei parte hartuko diete, aurreko paragrafoan aipatutako deialdiaren ondorioetarako, lanpostu hutsak aurreikusi edo egon

6. daitezen.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Udaleko Osoko Bilkurak aukeratuko ditu bake-epailea eta haren ordezkoa, bertako kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin, legezko baldintzak bete eta hala eskatzen duten pertsonen artean. Eskatzailerik ez badago, Osoko Bilkurak askatasunez aukeratuko du, prozedura-baldintza berberak betez.

7. artikulua.

1. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalaren erabakia barrutiko lehen auzialdiko eta instrukzioko epaileari edo, bat baino gehiago egonez gero, dekanuari igorriko zaio, eta hark gobernu-salara igorriko du.

2. Udalaren erabakiarekin batera, honako hauek jasoko dituen ziurtagiria aurkeztuko

da:

Hautaketa gertatu zen inguruabarren erreferentzia zehatza.
Legeak eskatutako quoruma bete dela berariaz aipatzea.
Identifikazio-datuak eta aukeratutakoen gaitasun- eta bateragarritasun-baldintzak.

8. artikulua.

Justizia Auzitegiko Gobernu Salak uste badu udalak aukeratutako pertsonak betetzen dituztela legeak eskatutako gaitasun- eta hautagarritasun-baldintzak, izendapenak egingo ditu, eta probintziako aldizkari ofizialean argitaratzeko aginduko du, eta horien berri emango die Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta Barrutiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaileari, edo dekanuari, bat baino gehiago badaude.

9. artikulua.

1. Aitzitik, Fiskaltzari entzun ondoren, gobernu-salak uste badu udalak proposatutako pertsonak edo pertsonak ez dituztela betetzen legeak eskatutako baldintzak, bake-epailea izendatuko du zuzenean.

2. Era berean jokatu du, bake-epaitegi batean postua hutsik geratzen denetik hiru hilabeteko epean, dagokion udalak aurreko artikuluetan aurreikusitako proposamena egiten ez badu.

10. artikulua.

1. Udalak bake-epaile titularren proposamena bakarrik egiten badu ordezkoa sartu gabe, gobernu-salak zuzenean izendatuko du ordezkoa.

2. Kasu horietan, Gobernu Salak egokitzen jotzen dituen datuak eta txostenak eskatu ahal izango ditu Barrutiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiaren edo, bat baino gehiago egonez gero, Dekanoaren bitartez.”

Hortaz prozedurari hasiera ematea adosten dute bildutakoek NAO-ra hutsik dagoen postua bete nahi dutenek, eskaeran aurkezteko epea irekiz. Argitaratzen denean bando bidez zabalduko da herrietan jarriz, web orrian, udaleko sareetan eta alkateek taldearen bidez.

5.- Igoako UA 2 unitateko urbanizazio proiektuaren aldaketa. Behin betiko onespena.

Alkateak gogoratzen die bildutakoei urbanizazio hau urteak ditu sustatuak eta lursailak saldu direnek urbanizazio proiektuak aldakea batzuk egin nahi zituztenez, urbanizazio proiektuaren aldaketa tramitatu dute 2017/71 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 134 eta 74 artikuluei jarraituz.

Urbanizazio proiektuaren aldaketa honi hasierako onespena 2024ko abuztuaren 28ko batzarrean eman zitzaion, behin udal arkitektoak baieztatu txostena egin zuen sustatzaileei eskatutako zuzenketak aurkeztu ondoren.

Hasierako onepen hori 2024ko irailaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta jende aurreko epean egon da urriaren 10a arte. Epe horretan ez dira alegazioak aurkeztu hortaz behin betiko onespena emateko ez legoke arazorik 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 134 eta 74 artikuluei jarraituz.

Hortaz bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Behin betiko onespina ematea Igoako UA2 unitateko urbanizazio proiektuaren aldaketari eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu.
- Erabaki hau sustatzaileei jakinarazi.

6.- Nilsa entitateak Uraren zikloaren plan zuzentzailearen barruan, Basaburuan burutzea aurreikusten dituen proiektuen onespina

Nilsa enpresa publikoak bidalitako jakinarazpena irakurtzen die alkateak bildutakoei du. Bertan adierazten du uraren zikloa arautzen duen plan zuzendariaren baitan udalerrri bakoitzean egin behar diren proiektua eta iharduerak udalerriek onartu behar dituztela haien batzarretan.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

1.- Berrestea Nafarroako Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailean aurreikusitako lanak egitearen aldeko nahia, Entitate honi dagokionez.

2.- Eskatzea Nafarroako Gobernuko Lurralde kohesiorako Departamentuari lankidetzara araubidea bat ezartzea.

3.- Onestea NILSAk aurkeztutako proposamenean adierazitako zehaztapenak, honako kontzeptu hauen gainean: a) Proiektuak eta baldintza-pleguak idaztea. b) Baimenak eta lizentziak c) Desjabetzeak kudeatzea. d) Obrak kontratatzea. e) Obren zuzendaritza teknikoa. f) Obrak eta gastuak ordaintzea. g) Instalazioen operazioa eta mantentzelana.

4.- Instalazioen eskualdaketari dagokion BEZa NILSAri ordaintzeko konpromisoa; eta baimena ematen da kopuru guztia edo horren zati bat ordaindu ezean, NILSAri ordaintzeko kopuru hori Toki Entitate honek Nafarroako Zergetan duen Partaidetza Fondoaren kargura.

5.- Toki Entitate honenak diren lursailen erabilera onesteko konpromisoa, kargarik gabe.

6.- Honako udalkide hau izendatzea solaskide gisa, ezarritako lankidetzara araubideari jarraipena egiteari begira Basaburuko alkatea den Santos Etxegia Oronoz izendatu.

7.- Erabaki hau Nilsa entitateari jakinarazi.

7.- Mozioak.

Ondoren NUKF-etik jasotako mozioa, azaroaren 25eko Nazioarteko Emakumeen Indarkeriaren kontrako egunaren ingurukoa, irakurtzen da:

“Gaur, azaroak 25, Nafarroako toki eta lurralde entitateok, beste behin ere, emakumeen kontrako indarkeria matxista mota guztiak irmoki gaitzesten ditugula adierazi nahi dugu. Indarkeriarik gabeko mundu bat aldarrikatzen dugu, non emakumeak zein haurrak beldurrik gabe, mehatxurik gabe eta beren eskubideen berme osoarekin bizi ahalko diren. Aurten, indarkeria horren modu suntsitzaille eta krudelenetako batean jarri nahi dugu begirada: indarkeria bikarioan. Matxismoaren muturreko adierazpen bat da, eta emakumeak kaltetzea du helburu. Horretarako, erasotzaileak bere gertuko jendea erabiltzen du, batik bat seme-alabak, emakumeari ahalik eta kalte emozional handiena eragiteko. Indarkeria mota horrek aztarna ezabaezina uzten du jasaten dutenengan, eta, kasu askotan, neska-mutilen heriotza eragin dezake. Indarkeria mota horretan, agerian geratzen dira indarkeria matxistaren ezaugarri diren botere-dinamikak: erasotzaileek ez dituzte beren haurrak izaki independente gisa ikusten, bikotekideen gaineko kontrolaren hedapen gisa baizik. Are gehiago, indarkeria bikarioak emakumeak etengabe zalantzan jartzen dituen gizarte baten konplizitatea du, emakumeak agintetik kendu eta haien hitza zalantzan jartzen duena. Hori dela eta, leloak “Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da” dio. “Hildako adingabeak amaren aurkako genero-indarkeria kasuetan, Espainian” izenburuko txostenaren arabera, 2013tik 2024ko urriaren 14ra bitartean guraso biologikoek, bikotekideek edo amaren bikotekide ohiek hildako adingabeen behin-behineko datuen kopurua 63 da, % 49 neskak eta % 51 mutilak. 2024an 10 kasu zenbatu dira (6 neskato eta 4 mutiko), azken hamarkadako kopururik altuena. Horregatik, funtsezkoa da errealitate konplexu hori aztertzea eta politika zehatzak aplikatzea ahalbidetzen duten informazio sistemak bermatzea. Azken urteotan, kasu lazgarrien berri izan dugu, zeinetan adingabeak akabatu diren haien amak zigortzeko helburu hutsarekin. Ezin dugu onartu indarkeria bikarioaren biktima gehiago egotea; ezta adingabeen bizitza emakumeen aurkako indarkeria betikotzeko tresna bihurtzea ere. 2021ean onartutako Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Babesteko Lege Organikoak arautzen duenez, adingabeko seme-alabak genero-indarkeria egoeran bizi direla adierazten duten zantzu sendoak daudenean, agintaritza judizialak, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, indarkeriaren egileari eten egingo zaio bere mende dauden adingabeei egin beharreko bisita-araubidea. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2022an, genero-indarkeria kasuetako % 8an baizik ez zen gurasoei bisita egiteko erregimena eten. Horren harira, NBEk Emakumearen Aurkako Indarkeriari buruz duen kontalari bereziak sarri defendatu du erabaki judizialek mesede egiten dietela gizonei. Izan ere, emakumeen testigantzak ez dira gizonenak bezain sinesgarriak, aurreiritziak, generoari lotutako estereotipoak eta joera diskriminatzaille patriarkala direla eta. Gure ustez, genero indarkeriaren arloan gure sistema juridikoan aurrerapen ukaezinak egin diren arren, arrakala handia dago oraindik Legearen eta haren aplikazio praktikoaren artean. Arazoaren larritasuna dela eta, premiazkoa da indarkeria matxistaren adierazpen horien biktimak babesteko sistemen funtzionamendua eraldatzea. Ezinbestekoa da gure politikak eta baliabideak indartzen jarraitzea indarkeria matxista mota guztiei aurre egiteko, baita ikusezinenei ere, indarkeria bikarioari, psikologikoari edo manipulazioari zein indarkeria instituzionalari. Emakumeek eta adingabeek bakean bizitzeko eskubidea dute, eta tokiko eta lurraldeko entitateek funtsezko erantzukizuna dugu alde horretatik. Ezin dugu beste alde batera begiratu; oinarrizko giza eskubideak urratzen dituen indarkeria hori prebenitzeko eta desagerrarazteko konpromiso irmoa eta kolektiboa hartu behar dugu. Hori dela eta, Nafarroako toki eta lurralde entitateetatik ondorengo konpromiso hauek hartu ditugu:

1. Indarkeria bikarioari buruzko berariazko sentsibilizazio-kanpainak sustatzea, indarkeriamota hori ikusarazteko eta herritarrak haren ondorio suntsitzaileen inguruan kontzientziatzeko.
2. Toki- eta lurralde-entitateetan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzea (poliziak, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta abar), indarkeria bikarioaren kasuak antzeman eta modu goiztiar eta eraginkorrean jokatu ahal izateko.
3. Babes integraleko neurriak bultzatzea, emakumeentzako eta haien seme-alabentzako, dituzten beharrak kontuan hartuta: arlo psikologikoan, juridikoan zein sozialean baliabideak izan ditzaten bermatuz, eta erreparazioa eta autonomia ahalbidetuz.
4. Herrialdeko Administrazioaren eta tokiko entitateen arteko ekintzak koordinatzea, indarkeria bikarioaren aurrean erantzun azkar eta eraginkorra bermatzeko, legehutsuneak saihestuz eta biktimen berehalako babesa bermatuz.
5. Tokiko berdintasun politiketan indarkeria bikarioaren ikuspegia txertatzea, indarkeria matxista prebenitzeko eta desagerrarazteko ekintzetan zehar-lerro gisa egon dadin. Aurten, Azaroaren 25ean, berdintasunean oinarritutako jendarte justu bat eraikitze konpromisoa berresten dugu, emakumeen aurkako indarkeriarik eta indarkeria bikariorik onartuko ez duena. Eta lanean jarraituko dugu haur eta emakume guztiak, duintasunez, askatasunez eta autonomiaz bizi daitezen.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute mozioa.

Bestetik eta gai berdinarekin lotuta EH Bildutik jasotakoa eta ondoren transkribatzen den adierazpena irakurtzen da:

“ 2003tik aurrera, emakumeenganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik 123 emakume eta 12 haur erailak izan dira Euskal Herrian. 2024an zehar 5 emakume erailak izan dira Euskal Herrian.

Azken erailketa matxista guzti hauek hainbat kezka eta urgentzia mahai gaineratu dituzte. Lehena, babes protokoloen gainerako da. Deskoordinazioak eta ardura ez hartzeak, babesaren kontzeptua eta emakumeengan jartzen den arduraren zama nabarmendu ditu. Indarkeria matxistaren ardura ezin zaio inoiz biktima den emakumeari jarri.

Urte luze hauetako lana izan da indarkeriari maskara kentzea. Ez da lau zororen kontua. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa baizik. Indarkeria matxistei buruz egindako makro inkestak datu larria mahai gaineratu zuen; bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.

Orain, hitzetik ekintzetara pasatzeko garaia da. Garrantzitsua da marko bar ezarriko duen legeak berriro edo sortzea, are gehiago mugimendu feministak eskatutako norabidean egiten denean, baina hauek ez dute ezertarako balio, garapenerako aurrekontu eta baliabide teknikoak ezartzen ez badira.

Azaroak 25 hau beraz, indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna izango da, jendarte normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak, ahozko lizunkeriak, mezu eta adierazpen sexistak, janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (esolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak, edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio erabakiak.

Bigarren estadio batea, sexu erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta esparrurik bortitzenean erailketak.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta gure kasuan, erakunde eremutik jardunez, horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatuz, berdintasun unitateak sustatuz ea haiei laguntza eskainiz, berdintasun teknikarien egonkortasuna edo kontratazioa bultzatuz, edota emakumeen parte hartzeko guneak sustatuz, (emakumeen etxeak eta txokoak, ahalduz eskolak jai parekideak eta abar). Gure herri eta hirietan bermatuta ez daude heinean, exijitzen jarraituko dugu.

Guzti honengatik, indarkeria matxista gertakarietan funtzionamendu protokoloek erabiltzen dituzten mekanismo guztiak egokiak izatea da giltza, beti ere, indarkeria mota hau pairatze duten emakumeen ahalduza helburu duten ikuspuntu batetik. Horretarako, instituzio publikoez gain, gai honetan adituak diren pertsonen eta mugimendu feministen parte hartzea beharrezkoa da ezarritako protokoloekin lagundu dezaten eta azken batean, berdintasunezko etorkizun baterantz abiatu gaitzen.

EH Bildun oso argi dugu indarkeria matxistari aurre gin ahal izateko ezinbestekoa dela berdintasun politikei beharrezko giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoak ematea eta ildo horretan uste dugu ikuspegi feministarekin lan egin behar dugula, egunero eta eremu guztietan, Krisiak ez du aitzakia ezin behar arazo larri eta kolektibo honi aurre egiteko beharrezkoak diren aurrekontuen murrizketa edo izoztea justifikatzeko.

Besteen mozioen aurrean

Urtero EAEn Eudelek proposatutako mozioa izaten dugu eta Nafarroak Berdintasun teknikarien sareak proposatzen duena. Aurtengo kasuan, bata zein bestea babestearen alde egingo dugu. Eudelekoak indarkeria matxista ukatzen duten diskurtsoen kontra egiten du. Adierazten honetan bi ekarpen egin genezake:

- 1.- Fokoa gazteetan gehiegi jartzen da, hauek kriminalizatuz. Diskurtso antifeminista hauek sektore politiko konkretu batzuetatik datozenean gehien bat.
- 2.- Planteatzen diren konpromisoetan punturen bat gehitu daiteke: mugimendu feministak deitze dituen mobilizazioetan parte hartze eta honetan batera Mugimendu Feministak urte osoan zehar indarkeria matxistaren aurrean egiten duen lanaketa balioan jarri edota herrian egon daitekeen proposamenen bat.

Nafarroako Berdintasun Teknikarien sarearen proposamenarekin ere bat egiten dugu. Argi utzi nahi dugu ordea, edo herri edo instituzioetan lanaketa espezifiko batean murgilduak bagaude, edo aurtengo mozioa zentzu ezberdin batean joatea behar badugu, tokian tokiko errealitateei egokitzea oso egokia dela eta dela horregatik Eudeleko zein berdintasun teknikarien proposatutako testua gure egin.

-Bestelako alderdiek haien kabuz haien proposamena erroldatuz gero, zirkular honen hasieran osatutako ideiekin eta jarraian agertzen diren proposamenekin zuzenketa bat egin beharko genuke. Besteak beste:

- 2025eko aurrekontuen prestakuntzan murgilduta gaude eta beraz berdintasun arloaren aurrekontuetan igoerak aplikatzeko konpromisoa hartuko dugu.
- Gure erakundeak berdintasun sail bat baldin badu baliabideak emateko eta, horrela egonkortzeko eta indartzeko proposamen bat sartuko dugu. Giza baliabideak egonkorak izan ezin, lan baldintza duinak ere izan behar dituzte, Gure erakundeak ez badu berdintasun sailik edota gizarte zerbitzuekin batera baldin badago, sail hori sortzeko proposamena egingo dugu.

- Eta erakundeak protokoloren bat baldin badu, proposatuko dugu baliabideak aktibatzea ea jarraipen ebaluazio eta berrikuspen egokiak egiteko, ikuspegi feminista eta parte hartzaile batetik.
- Udalerrian parte hartzerako gunerik ez badago proposatuko dugu emakumeen etxe eta txokoei ahalduz eskolei, parte hartze eraginkorrerako guneei ea udalerriko emakumeen elkarte zein kolektibo feministek inoiz eskuratu iza duten parte hartzerako edozein eremu motari laguntza ematea. Udalerrri batuetan espazio horiek murrizketak izan dituzte aurten. Horiek mantentzeko eskatu behar dugu, indarkeria matxisten aurrean ahalduz eta ekintza feminista kolektiborako funtsezko espazioak baitira..
- Mugimendu feministarekin eta emakumeen mugimenduekin egin beharreko lankidetzak sartuko dugu nahitaez.
- Ez dugu inola ere onartuko "etxeko indarkeria" izendapena ea ahal den neurrian ez dugu erabiliko "genero indarkeria" adiera "indarkeria matxista" lehenetsiko dugu.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako adierazpena.

8.- Garbiketa eta zerbitzu anitzetako lanpostuen ordezkapenatarako zerrendak. Oinarrien onespina.

Ogasunen hitz egin den moduan alkateak azaltzen du, egonkortze prozesuaren baitan kontutan hartuta hutsik gelditu ahal direla lanpostuak eta ez dituela udalak ordezkapenatarako eta beste egoeratarako zerrenda, lanpostu horien ordezkapenak eta beste egiteko zerrendak izatea dela proposamena eta horretarako prestatu diren oinarriak onartu prozesua martxan jartzeko. Premiazko prozedura erabiliko da kasu honetan eta horregatik Nafarroako Enplegu Zerbitzuaz baliatuko da udala difusioa emateko prozedurari. Ez da behar langabezia egotea prozesuan parte hartzeko, eta ez dira bakarrik Enplegu Zerbitzutik bidaltzen dituzten hautagaiak, prozesu irekia izango da eta bando bidez ere zabalduko da. Zerrenda hauek Larraun, Imotz, Arakil eta Araitzko udalekin partekatuko dira, udal guztien artean sinatutako hitzarmenaren baitan. Udal guztietako ordezkariak osatutako mahaia eratuko da prozesu hauek kudeatzeko.

Hortaz bildutakoek ogasun batzordean oinarriak aztertu ondoren, erabaki hau hartzen dute aho batez:

Onartzea garbiketa eta zerbitzu anitzetako lanpostuen ordezkapenatarako zerrendak osatzeko oinarriak.

Erabaki hau Larraun, Imotz, Arakil eta Araitzko udalei helarazi haien onespina jasotzeko.

9.- 2. pisuko etxebizitzaren errentaren esleipena.

Alkateak azaltzen die bildutakoei jada ogasun batzordean aztertu dela gai hau. Urriaren 28an bukatu zen epea prezio librean errenta pisua hartzeko. Epe horretan 4 eskatzaile aurkeztu ziren eta horietatik 2 ez zuten dokumentazioa osatua aurkeztu, eta hirugarrena baztertua gelditu da etxebizitza baten %50eko jabe delako.

Hortaz aurkeztutako 4. Izan da esleipenduna, dokumentazio guztia osatua aurkeztu eta 20 punturekin.

Hortaz bildutakoek onartzen dute 2. Pisuko etxebizitzaren errenta Aitor Arangoa Mariezkurrenari esleitzea eta erabaki hau parte hartu duten guztiei helaraztea.

10.- Batzordeen informazioa.

Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Euskara ikastaroak hasi dira, Jaunsaratsko taldea C1 mailakoa da eta Aizarotzko hasierako maila.

Bertso afaria azaroaren 9an ospatuko a Apeztegierrin. Irratian egun hauetan Oihane Iguarani elkarriketa egingo diote.

Aizarotzko estatuko errentariak eskaera luzatu zion Kultur Batzordeari diruz laguntzeko estatuko 2 urte urrenaren ekitaldietan. Batzordearen erabakia izan da kontutan hartuta jada ekitaldi hori pasa dela, hurrengo urtera begira ekitaldiren bat bertan antolatu.

Aizarotzko herrikoetxea idazle batekin liburu aurkezpena eta solasaldia burutuko da hurrengo astean eta abendurako olentzeroren antolaketarekin hasiko da batzordea.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

2025eko maiatzaren 31ean burutuko da BTT eta hala jakinarazi da Nafar Gobernura haien kirol egutegian txertatu dezaten. Duathlon ez da burutuko.

Yoga ikastaroan hasi dira ere eta bi talde daude batean 15 parte hartzaile eta bestean 14. Talde batek egun bakarrean egiten du eta bigarrenak bi egunez.

Pilota goxua txapelketa hasi zen urriaren 26an tea abenduaren 21ean jokatu da finala. Partiduak Gartzaron, Igoa eta Latasan burutuko dira, ostiral arratsalde edo larunbat goizetan.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Batzordea elkartu da Sasturain etxeko eguneko zentroa baimentzeko dokumentazioa prestatzeko, jada Nafar Gobernura bidali da. Gaur bilera izan da Eskubide Sozialen departamentuan haiek hala eskatuta proiektuaren inguruan hitz egiteko eta azaldu dute 9 erabiltzaileentzat baimena emanen dutela bakarrik kontutan hartu dutelako jubilotekaren gela ez dela eguneko zentrorako erabiliko. Baina espazio hori erabiliz eguneko zentrorako 15 egoiliarrendako emanen luketela baimena.

Hortaz proiektuan aldaketa hori txertatu da eta adnduen gela edo jubiloteka lehen pisura pasako da.

Azaroaren 16an scape room iharduera burutuko da Aizarotzko herrikoetxean eta bertan 3 taldek parte hartuko dute.

Pintxo lehiaketa azaroaren 16-17 eta 23-24 asteburutan burutuko da eta parte hartzaileak, Orokieta, Beruete eta Aizarotzko estatutak izango dira eta Apeztegierriko denda.

11.- Informazio orokorra.

- Iharduera ekonomikoen gunera argi eramateko obraren hasiera, diru laguntzak hala eskatzen zuelako irailaren 30ean egin zen, bitartean urbanizagabeko lurrian obra egin behar denez Lurralde eta Paisai ataleko baimena tramitatzen ari da udala ondoren Industria Departamentuak ere baimentzeko.
- Sasturain etxeko beheko solairua egokitzeko obrak azaroaren 5ean hasiko dira.
- PSTD programan sartutako ihabengo aisialdi guneko egokitzapen obra proiektuentzat CHE entitatearen baimenaren esperoan dago udala.
- Cederna Garalurrek udalerrak elkartzeko sendak izendatzeko egitasmoa martxan jarri du eta Basaburuaren kasuan, Ihabendik Imotzera doan senda sartuko da alde batetik eta Erbititik Juarbera doana bestetik Ultzamarekin elkartzeko kasu honetan.
- Cederna Garlurrek aktibazio planaren baitan hainbat bilera burutu ditu hilabete honetan, elikadura jasangarria edo biomasaren aprobetxamenduaren inguruan.
- Mimukai espazioan hilabete honetan hainbat formakuntza emanen dira, zergen aurkeztearen inguruan eta beste..
- Komunitate energetikoen inguruko hitzaldian burutzen ari dira, hurrengoa Jaunsaratsen izango da azaroaren 12an eta bertan gainera argi indarraren faktura nola ulertu ikasiko da.
- Eskola garraioaren egoeraren inguruan familiekin bilera egin da eta bertan Hezkuntza Departamentuari helarazitako eskaerak azaldu, zerbitzua ahalik eta zuzen eta motxen izateko. Familiek gainera eskaera berdinak egingo dituzte ikastetxeetan eta arartekoari gutuna helaraziko.
- Aizarotzko herriko ordezkariekin bilera izan da eta bertan umeen parkearen 2 fasea burutzea eskatu dute. PDR programaren baitan diru laguntza eskaera egingo da gastu horri aurre egiteko.
- Aizarotzko katuen kolonia. Hainbat bizilagunek kexak helarazi dituzte kalean dauden katu talde baten inguruan. Alkateak beraiekin hartu duen konpromezua izan da 3 katu esterilizatzea, udalaren izenean jarriko dira identifikazio plakak eta kexa aurkeztu duen bizilagun bat arduratuko da katuak Lekunberriko albaitarienera eramateaz.
- IKA euskaltegian eskaintzen dituen euskara ikastaroekin lotuta ikasleek eskaini zitzaizen udalaren laguntza matrikula ordaintzeko ekarpena eginaz hitzarmen bat sinatuz. Behin Euskarabideako laguntza jasotzen duten ekarpen hori udalera bueltatu beharko lukete. Bi ikasleek egin dute laguntza eskaera hori hortaz haiekin sinatuko da hitzarmena-.

12. Erreagu-galderak

Arraratsko alkateak PDR programaren informazio helaraztea eskatzen du, herrian egurtegi komunitario egiteko aukera bertan sartzen den aztertzeko.

Bestetik ere eskatzen du galdetzea ea Nilsan Arraratsen ze obra egitea aurreikusten dituen uraren plan zuzentzailean.

Bukatzeko galdetzen du aurten elurkentzeko lanak nola egingo diren erabakia dagoen. Alkateak erantzuten dio aurreko pertsona berdinari proposamena luzatuko diola lan horiek burutzeko.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:15 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.